

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****MAÑUETAKO UDALA****Behin betiko onestea zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen ordenantzaren aldaketa**

Mañuetako udalbatzak behin betiko onespena eman dio zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasa arautzen duen ordenantza aldatzeko espedienteari.

Ordenantza horrek, hitzez hitz, honela dio:

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzeko zerbitzuarengatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan ezarriko da.

Zerga egitatea

3. artikulua

Tasaren zerga gaia zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzua eskaintzea da. Zabor bilketa honako leku hauetan egingo da: jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren etxebizitzetan, ostatuetan eta lokaletan edo establezimenduetan.

Subjektu pasiboa

4. artikulua

Subjektu pasibo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horien jabe, gozamedun, maizter edo prekarioko erabiltzaile.

Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboa etxebizitza edo lokalaren jabea izango da. Jabeak, hala dagokionean, ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dizkie etxebizitza edo lokala erabiltzen dutenei, hau da, zerbitzuaren onuradunei.

Zerga oinarria

5. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, tarifyan ezarrita dagoen bezala.

Kuota

6. artikulua

Kuota zehazteko, aurreko artikuluko arabera ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

Sortzapena**7. artikulua**

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

Arau haustea eta zehapenak**8. artikulua**

Zerga arau-hausteen kalifikazioari buruzko guztian, bai eta kasu bakoitzean arau-hauste horiei dagozkien zigorren kalifikazioan ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere eranskina behin betiko onetsi ziren eta indarrean jarraituko dute harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eranskina**Tarifak**

1. epigrafea: Etxebizitza: 80,00 euro.

2. epigrafea: Janari dendak: 80,00 euro.

3. epigrafea: Kafetegi-taberna jarduera duten establezimendu publikoak: 80,00 euro.

Zabor edukiontzi bat edo gehiago berentzat bakarrik eduki nahi duten upeltegi, partikular edo entitateek zerbitzu horren kostuaren arabera urteko tarifak izango dituzte, zerbitzua ematen duen Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillari ordaindu behar baitzaio kostu hori.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da. Ediktu honen kopia Mañuetako udaletxeko ediktu taulan egongo da ikusgai, ondorio bereberkin.

Mañueta, 2020ko uztailaren 13a

Alkatea

FRANCISCO JAVIER GARCÍA PÉREZ DE LOZA